



TOLOSAKO
UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA
2018.06.28

Tolosako Udaletxean, 2018ko ekainaren 28an, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 28 de junio de 2018, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegi Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Kristina Peláez Errazkin
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Bertaratu ez den zinegotzia:

Lore Agirre Zipitria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Eguneko gaia zerrenda

Orden del día

1. Ondorengo akta onartzea:
2018ko maiatzaren 29ko Ohiko Osoko

1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 29 de mayo de



- | | |
|---|--|
| Bilkurakoa. | 2018. |
| 2. Batzar Orokor Unibertsalaren funtzioetan, Tolosa Lantzen SL Sozietateko 2017ko ekitaldiari dagokion urteko kontuen onarpena. | 2. En funciones de Junta General Universal, aprobación de las cuentas del ejercicio de 2017 de la sociedad Tolosa Lantzen, S.L |
| 3. 2018ko Aurrekontua gauzatzeko Arauaren aldaketa. Hasierako onarpena. | 3. Aprobación inicial de la modificación de la Norma de Ejecución del presupuesto del ejercicio 2018. |
| 4. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena. | 4. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado. |
| 5. Onartzea animaliak eduki eta babesteko Udal Ordenantzak xedaturikoa hausteagatiko zehapena: 2018UAPS0002 espedientea. | 5. Aprobación de una sanción por infracción de la Ordenanza reguladora de tenencia de animales y su protección. Expediente nº 2018UAPS0002. |
| 6. 2018/1278 (2018/7 transferentzia kreditua) Dekretuaren jakinarazpena. | 6. Dar cuenta del Decreto 2018/1278 (crédito de transferencia 2018/7). |
| 7. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko maiatzaren 1etik 31ra (2018/869- 2018/1.140). | 7 Dar cuenta de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 31de mayo de 2018 (2018/869-2018/1.140). |
| 8. Mozioa, ekainaren 28a Gay, Lesbiana, Transexual, Bisexual, Intersexual eta Queer-en eskubideen nazioarteko eguna dela-eta. | 8. Moción con motivo del 28 de junio, día internacional por los derechos de Lesbianas, Gays, Transexuales, Bisexuales, Intersexuales y Queers. |
| 9. Euskaraldia udalerrian sustatzeko mozioa. | 9. Moción para promocionar Euskaraldia dentro del municipio. |
| 10. Galderak eta eskaerak. | 10. Ruegos y preguntas. |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

- | | |
|---|---|
| 1. Ondorengo akta onartzea:
2018ko maiatzaren 29ko Ohiko Osoko Bilkurakoa. | 1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 29 de mayo de 2018. |
|---|---|

Izenburuan aipatutako akta aho batez **onartu** da.



2. Batzar Orokor Unibertsalaren funtzioetan, Tolosa Lantzen SL Sozietateko 2017ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuen onarpena. 2. En funciones de Junta General Universal, aprobación de las cuentas del ejercicio de 2017 de la sociedad Tolosa Lantzen, S.L

Tolosa Lantzen SL sozietatea Batzar Orokor Unibertsalaren funtzioetan eratu ondoren, 2018ko martxoaren 23an Administrazio Kontseiluak hartu zuen erabakiaren berri eman zaie batzarkideei.

Jarraian, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehen.- Onartzea aipatutako sozietatearen 2017. ekitaldiko urteko kontuak, hala nola egoera-balantzeak, galdu-irabazien kontuak eta txostenak.

Bigarren.- Erakundearen Galdu-Irabazien 2017. ekitaldiko kontuen -94.307,14 euroko emaitza negatiboa modu honetan aplikatzea: erakundearen ondorengo ekitaldien emaitzen kontura konpentsatuko da.

Hirugarren.- Sozietateko Administrazio Kontseiluaren lehendakaria ahalmentzea agiri horiek guztiak merkataritza-erregistroan aurkezteko.

3. 2018ko Aurrekontua gauzatzeko Arauaren aldaketa. Hasierako onarpena. 3. Aprobación inicial de la modificación de la Norma de Ejecución del presupuesto del ejercicio 2018.

Parte-hartzeak:

Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeburua: *“Urte hasieran pleno bertan aurrekontua gauzatzeko arauak baieztatu genituen baina, denok dakigun bezala, kontratazio lege berriarekin indarrean jarri dira beste lege batzuk. Hori dela eta, 29. artikulua egokitu beharra daukagu. Beraz, Ogasun batzordetik diktamena dakarkigu onarpenerako. Aldaketak 29. artikuluan dira gehienbat. Guk nolabait zenbakien korrelazioa ez aldatzeko, 29. artikulua banatu egin dugu bitan. Alde batetik, 29.*



artikulua eta bestetik, jarri dugu 29. bis artikulua. Hori guztia, orain dela hilabete batzuk onartu genuen arauen aldaketa berriro ez aldatzeagatik. Beraz, 29. artikuluan izenburua bezala, Kontratazioen urteko plana, hau da, artikulua berri bat sartu behar izan duguna, gehienbat lege berriak horrela eskatzen duelako. 29. bis artikuluan sartzen dugu kontratu txikien mugak izenburuarekin. Hemen lege berria indarrean jarri denetik kontratu txikien mugak aldatu dira, kasu honetan obren egiten diren gastuak 40.000 eurotik baino txikiagoa izan behar du eta zerbitzu eta hornidura kontratuetan muga 15.000 euroetan jarrita dago. Horretaz aparte, egin dugu beste aldaketa bat: hemendik aurrera departamentuetatik eskatu beharko dira hiru aurrekontu 6.000 eurotik gorako gastuetan (BEZa barne). Aldaketa hau eginda da aurretik 3.000 euro jarrita zegoelako eta ikusten genuen motz xamarra gelditzen zela. Horretaz aparte, aprobetxatu dugu 37. artikulua aldatzeko. Hau lehenagotik jarrita zegoen beste era batera artikulatuta. Kasu honetan kutxa finkoko aurrerakinataz ari gara, hau da, aurretik egin ditzakegun antizipoak. Proposatzen dugun aldaketa da, nolabait departamentuak aukera edukiko zutelako, ikusten badugu edo justifikatzen badute bi aukera. Bat eskudiruzko kutxa eta beste aukera kontu bat irekitzea finantza entitate batean pasa zaigun dokumentazioan azaltzen zaigun bezala. Horretaz aparte, hemen, baita ere jarri duguna da antizipoa izan behar duela edo inoiz ezin duela izan aurrekontuetako partidaren laurdena baina haundiagoa eta muga bezala jarri dugu 1.500 euro. Eta horretaz aparte kontutan hartu beharko genuke gastuen kopurua banakatuta edo banan-bana jarrita ezin izango zirela izan 600 euro baino handiagoak. Hauek dira gure proposamenak Udalbatza honetan onartzeko.”

OGASUN BATZORDEAREN 2018KO EKAINAREN 21EKO IRIZPENA.

Tolosako Udaleko 2018ko Aurrekontua Gauzatzeko Arauak, 29. artikuluan, ondorengo arautzea diktaminatu da:

“29. artikulua.- Kontratazioen urteko plana

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 28.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, sektore publikoko erakundeek, aurrekontu-ekitaldi batean edo hainbat urtetakoetan, kontratazioaren arloan garatuko duten jarduerak programatuak dute. Beren kontratazio plana aldez aurretik ezagutaraziko dute, iragarki informatzaile baten bidez. Iragarki horretan, araubide harmonizatuaren mende egongo diren kontratuen berri emango du.

29.bis artikulua – Kontratu txikien funtzionamendua

1.- Kontratu txikitat hartzen dira, obra-kontratua bada, 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak; hornidura- edo zerbitzu-kontratua bada, berriz, 15.000



TOLOSAKO
UDALA

eurotik beherakoak, 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, bere 229. artikuluan ezarritakoaren kaltetan izan gabe. Era berean, kontuan izan behar da kontratuaren iraupenak ez duela gainditu behar urtebeteko epea.

Kontratu txikietan, espedientearen tramitazioan jaso behar da organo kontratatzailearen txostena, kontratuaren beharra arrazoitzen duena. Era berean, eskatuko da espedientearen jasotzea gastuaren onarpena eta dagokion faktura, zeinak bete beharko dituen Lege hori garatzeko araudiak ezarritako baldintzak.

2.- Oبرا-kontratu txikietan, gehitu behar da, gainera, obraren aurrekontua, eta, berariazko arauak hala eskatzen dutenean, dagokion proiektua ere bai. Eskatu beharko da, halaber, 235. artikuluan aipatzen dituen ikuskatze-unitateen edo bulegoen txostena, baldin eta lanak eragiten badie obraren egonkortasun, segurtasun edo estankotasunari.

3.- Espedientearen justifikatu behar da ez dela kontratuaren helburua aldatzen kontratazioko arau orokorren aplikazioa saihesteko, eta kontratistak ez duela sinatu beste kontratu txikirik (izan daiteke kontratu bat edo kontratu-multzo bat) artikuluan honen lehen atalean xedaturiko gehieneko zenbatekoa gainditzen duenik. Kontratazio-organoen egiaztatuko du arau hau betetzen edo ez.

4.- Kontratu txikiak argitaratu behar dira 63.4 artikuluan ezarri bezala.

5.- Gastu arruntetarako edo inbertsioetarako 6.000 € (BEZa barne) gainditzen dituen kontratu txiki bat egiteko, espedientearen tramitazioaz gain, aurreko artikuluetan ezarritakoari jarraiki, eskatuko da 3 aurrekontu aurkeztea. Orokorrean, kontratu txikien prozeduretan, prezioa izango da balorazio-irizpide bakarra. Baldin eta pentsatzen bada teknikoki egokia dela prezioa ez beste irizpide batzuk baloratzea, orduan, puntu hori jaso beharko da espedientearen.

Salbuespenez, eta dagokion txostenarekin behar bezala justifikatu ondoren, enpresa gaitu bakar bati kontsulta egin ahal izango zaio, ondorengo zirkunstantzia hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Arrazoi teknikoengatik (patenteak, garapen informatiko propioak) edo arrazoi artistikoengatik.

b) *Kontratuaren xede den zerbitzua aldi batean betetzeko beharra dagoenean, harik eta zerbitzuaren kudeaketa moduaren prozedura ireki/simplifikatu /supersimplifikatu/mugatu/negoziatu bat esleitu arte, beti ere dagokion espedientearen hasi bada."*

Eta, 37. artikuluan, ondorengoak:



37. artikulua – Kutxa finkoko aurrerakinak.

1.- Inguruabarrek hala justifikatzen dutenean, ireki ahal izango dira eskudiruzko kutxak edo kontuak finantza-entitateetan departamentuentzako, honela izendatuta: “*Tolosako Udala*”, “... *Departamentua*”.

Kutxa finkoko aurrerakintzat hartuko dira aurrekontuz kanpoko fondo-hornikuntza iraunkor batzuk, zeinak egiten baitzaizkie ordaindegiei, kutxei eta gaikuntzei berehalako arretarako, eta erabiltzen baitira urteko aurrekontuaren geroko aplikaziorako, gehieneko kopuru banakatua 600 euro izanik; ohiko arreta aldizkako edo errepikakorretarako gastuak sartzen dira hor, besteak beste, dietak, bidaiagastuak, ibilgailuen ikuskapen teknikoak, bulegoko material inbentariaezina, artapena, ordezko piezak eta antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuk.

2.- Kutxa finkoko aurrerakinen izaeraz egin ahal izango dira fondoan hornidurak, kontuhartzaileak proposatutako gaituen alde, ondoren aipatzen diren gastu hauei aurre egiteko:

- Konponketak eta zainketa (materiala eta konponketa txikiak), 211-212-213 kontzeptuak.
- Material arrunta ez-inbentariagarria (bulegokoa eta bestelako materiala), 220 eta 221 kontzeptuak.
- Dietak. Lokomozio gastuak eta beste kalte-ordain batzuk (230-231 kontzeptuak).
- Gastu txiki batzuk babes-zibilerako (partida: 0400.226.99.135.10).
- Jabetza erregistroa, 226.04 kontzeptua.
- Propaganda eta publizitatea, 226.03
- Bestelako gastuak, 226.99 kontzeptua.

Alkateak baimenduta izango dira, eta beren kopurua ezin izango da aplikatuta dauden aurrekontuetako partidaren laurdena baino handiagoa, zeinari aplikatuko baitzaizkio kutxa finkoko aurrerakinen bidez finantzatzen diren gastuak.

Aurrerakin bakoitzaren kopurua ez da 1.500 euro baino handiagoa izango, salbuespenetan izan ezik.

3.- Diruzaintzako beharrek fondoak berriz jartzeko eskatzen duten heinean, baimenduek kontuak emango dituzte diruzainaren aurrean; gero diruzainak adostu eta Diruzaintzara bidaliko ditu ikuskatu daitezten. alkateak baimenduko ditu kontu horiek.

Kutxa finkoko aurrerakinen jasotzaileek jasotako aurrekinen kontua eman beharko dute udal Kontuhartzailetzaren aurrean, egindako ordainketen kontabilitatea eta jatorrizko egiaztagiriak aurkeztuta. Kontu hauek emango dira gehienez hilabete bateko epean aurrerakina eman den egunetik kontaktzen hasita, eta, beti ere, abenduaren 15a baino lehen.



TOLOSAKO
UDALA

4.- Aurreko puntuan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, eta hiruhileko natural bakoitzeko azken dataz, baimendutakoek kontu emango diote diruzainari zein izan diren egindako erabilpenak eta nola dauden fondoak.

Beraz, ondorengoa diktaminatu da, bertaratutakoen aldeko botoekin, eta proposatzen du:

Lehena.- Osoko Bilkurak goian aipatutako aldaketak onartzea 2018ko Aurrekontua Gauzatzeko Arauan.

Bigarrena.- Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Aldaketa hori behin betiko onartutzat joko da, baldin eta erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** hasierako onarpena ematea 2018ko Aurrekontua gauzatzeko Arauaren aldaketari.

4 Ixitako ekitaldiko fakturen onarpena. 4. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.

OGASUN BATZORDEAREN 2018KO EKAINAREN 21EKO IRIZPENA

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, bere 61. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren faktura hauek 2018ko ekitaldian jaso dira, baina 2017ko ekitaldiko faktura data dute.



HARRERA DATA	FTRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FTRA. ZK.	KONTZERTUA	KOPURUA
2018-04-25	2017-04-25	0800.227.04.333.10	SGAE	3445742	SERVICIOS DE RECAUDACION DERECHOS DE AUTOR	394,53 €
2018-04-25	2017-02-22	0800.227.04.333.10	SGAE	3439880	SERVICIOS DE RECAUDACION DERECHOS DE AUTOR	88,79 €
2018-04-25	2017-03-24	0800.227.04.333.10	SGAE	3441621	SERVICIOS DE RECAUDACION DERECHOS DE AUTOR	176,37 €
2018-04-25	2017-04-25	0800.227.04.333.10	SGAE	3446098	SERVICIOS DE RECAUDACION DERECHOS DE AUTOR	97,50 €
2018-04-25	2017-05-24	0800.227.04.333.10	SGAE	3447612	SERVICIOS DE RECAUDACION DERECHOS DE AUTOR	169,59 €
2018-04-25	2017-06-23	0800.227.04.333.10	SGAE	3449258	SERVICIOS DE RECAUDACION DERECHOS DE AUTOR	82,20 €
2018-04-25	2017-07-21	0800.227.04.333.10	SGAE	28513713	SERVICIOS DE RECAUDACION DERECHOS DE AUTOR	50,93 €
2018-04-25	2017-08-24	0800.227.04.333.10	SGAE	3455491	SERVICIOS DE RECAUDACION DERECHOS DE AUTOR	157,09 €
2018-04-25	2017-10-23	0800.227.04.333.10	SGAE	3462199	SERVICIOS DE RECAUDACION DERECHOS DE AUTOR	17,69 €
2018-04-25	2017-11-27	0800.227.04.333.10	SGAE	3464723	SERVICIOS DE RECAUDACION DERECHOS DE AUTOR	92,17 €
2018-04-25	2017-12-20	0800.227.04.333.10	SGAE	1170007630	SERVICIOS DE RECAUDACION DERECHOS DE AUTOR	315,21 €
2018-04-25	2017-01-25	0800.227.04.333.10	SGAE	3435087	SERVICIOS DE RECAUDACION DERECHOS DE AUTOR	27,21 €
2018-04-25	2017-10-23	0800.226.06.334.10	SGAE	3461887	SERVICIOS DE RECAUDACION DERECHOS DE AUTOR	686,52 €
2018-04-25	2017-10-01	1100.226.08.172.00	LEABURUKO OSTATUA	L-17/054	IURRAMENDIKO BARATZAK	525,00 €
2018-04-20	2017-10-04	0300.227.07.920.10	QUIRON PREVENCION, S.L.U.	117239854	SEGURIDAD, HIGIENE, ERGONOMÍA Y MEDICINA DEL TRABAJO (01-10-2017 / 31-10-2017)	1.110,09 €
2018-04-20	2017-10-10	0300.227.07.920.10	QUIRON PREVENCION, S.L.U.	117251337	ANALITICAS PERSONAL AYUNTAMIENTO	549,35 €
2018-04-20	2017-11-01	0300.227.07.920.10	QUIRON PREVENCION, S.L.U.	117267994	SEGURIDAD, HIGIENE, ERGONOMÍA Y MEDICINA DEL TRABAJO (01-11-2017 / 30-11-2017)	1.110,09 €
2018-04-20	2017-12-21	0300.227.07.920.11	QUIRON PREVENCION, S.L.U.	117325602	SEGURIDAD, HIGIENE, ERGONOMÍA Y MEDICINA DEL TRABAJO (01-12-2017 / 31-12-2017)	1.110,08 €
2018-05-18	2017-12-18	0800.221.11.334.11	MONTTE, S.L	C17-28106-R	KULTUR TAILERRETAKO HAINBAT MATERIALA	156,04 €
2018-05-18	2017-11-27	0300.220.00.920.00	MONTTE, S.L	C17-25860-R	UDALETXERAKO GRAPAGAILU ELEKTRONIKOA	422,34 €
2018-05-18	2017-11-13	0300.220.00.920.00	MONTTE, S.L	C17-24834-R	UDALETXERAKO FOTOKOPIAGAILUAREN ZAKO A4 PAPERA	662,48 €
2018-05-18	2017-11-20	0300.220.00.920.00	MONTTE, S.L	C17-25372-R	UDALETXERAKO HAINBAT MATERIALA BULEGORAKO	173,14 €
2018-05-03	2017-09-28	0800.221.99.333.10	ENDESA ENERGIA, S.A.U.	PZZ707N0005203	ASESORIA ENERGETICA SPG ANUAL 2014. CINE LEIDOR	245,73 €
2018-05-03	2017-09-28	1100.221.99.431.10	ENDESA ENERGIA, S.A.U.	PZZ707N0005458	ASESORIA ENERGETICA SPG ANUAL 2014. ZERKAUSIA	169,81 €
2018-05-03	2017-09-29	0700.221.99.920.31	ENDESA ENERGIA, S.A.U.	PZZ707N0005746	ASESORIA ENERGETICA SPG ANUAL 2015. RONDILLA KALEA 60-1. EZK	3,15 €
2018-05-03	2017-10-03	0900.221.99.326.10	ENDESA ENERGIA, S.A.U.	PZZ707N0005969	ASESORIA ENERGETICA SPG ANUAL 2017. IGERALDE 23-25 (EPA)	57,74 €
2018-05-03	2017-10-03	0500.221.99.231.00	ENDESA ENERGIA, S.A.U.	PZZ707N0006086	ASESORIA ENERGETICA SPG ANUAL 2017. IZASKUNGO ANDRE Mª 4-BEHEA ESK	3,92 €

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, bere 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharreri dagokienez.

2017ko abenduaren 31an aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2018ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Hori guztia ikusirik, batzordeak aho batez diktaminatu du itxitako ekitaldiko faktura hau Osoko Bilkurara bidaltzea, onar dezan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.



TOLOSAKO
UDALA

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** itxitako ekitaldiko faktura-zerrenda.

- | | |
|--|---|
| <p>5. <u>Onartzea animaliak eduki eta babesteko Udal Ordenantzak xedaturikoa hausteagatiko zehapena: 2018UAPS0002 espedientea.</u></p> | <p>5. <u>Aprobación de una sanción por infracción de la Ordenanza reguladora de tenencia de animales y su protección. Expediente nº 2018UAPS0002.</u></p> |
|--|---|

Parte-hartzeak:

... Alkatea: *“Aurreko osoko bilkura izan genituen horrelako espedienteak. Ordenantza aldatzekoetan gara Gobernu Batzarretik onartzeko, baina ordenantza aldatu bitartean osoko bilkura ekarri behar dira”.*

UDALTZAINGOA ETA MUGIKORTASUN BATZORDEAREN 2018KO EKAINAREN 6KO IRIZPENA

I) AURREKARIAK

Aurtengo urtarrilaren 8an herritar bat Udaltzaingoaren bulegora etorri zen, kalean ustez galduta zebilen txakur bat ekarri zuelarik berarekin. Udaltzain batek mikrotxipa irakurri ondoren, txakurraren jabea E.L.Z. jauna zela jakin izan zuen.

2018/288 Alkate Dekretuaren bidez, E.L.Z.ri zigor-espedientea ireki zitzaion, etxe abereen ordenantzaren 9.2.g artikulua ustez hausteagatik.

E.L.Z.k 2018ko otsailaren 23an honako alegazio hauek aurkeztu zituen:

I) ANTECEDENTES

El día 08 de enero de 2018 un ciudadano se personó en las dependencias de la Policía Local trayendo consigo un perro que presumiblemente se había extraviado. Un agente de la Udaltzaingoa procedió a la lectura del microchip por el que pudo tener conocimiento de que el propietario de dicho animal era E.L.Z.

En fecha 02 de febrero de 2018, mediante Decreto de Alcaldía 2018/288 se incoó expediente sancionador a E.L.Z. por presunta infracción del artículo 9.2.g de la Ordenanza Municipal sobre animales domésticos.

En fecha 23 de febrero de 2018, E.L.Z. presenta las siguientes alegaciones:



TOLOSAKO
UDALA

Bere etxebizitzara joan zenean, txakurra egon ohi den terraza-lorategiko atea erabat irekita ikusi zuela. Irekita egotearen arrazoia ez zekiela, izan ere, berak itxita utzi zuen.

Instrukzio egileak egindako ebazpen proposamena jakinarazi zitzaion interesatuari 2018ko apirilaren 21eko datarekin. Honelaxe zioen:

- E.L.Z.k ondorengo arau-hauste larria egin duela deklaratzeko: etxe abereen Ordenantzaren 9.2.g artikulua.

- 300,00 euroko isuna jartzea.

Proposamen horretan, interesatuari hamar eguneko epea eman zitzaion, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

E.L.Z.k maiatzaren 3an aurkeztutako idatzian honako hau alegatzen du:

Kode Zibileko 1905. artikulua arabera, ezinbestek bultzatutako egoeratan animalien jabeak duen ardura salbuesten da.

Alegazio-egileari erantzun behar zaio ezen, Kode Zibilaren 1.105. artikuluan xedatutako araberan, ezinbesteko kasua kanpotik datorren gertaera saihestezin edo aurreikusi ezin den bat dela. Kasu honetan, lorategiko atea kanpoko eragileek irekitzea, hala izan bada ere, ez da aurreikusi ezin den gertaera bat, ezta gertaera saihestezin bat ere; beraz, ez dira inolara ere azaltzen gertaera hori erantzukizun gabekotzat hartzeko behar diren baldintzak.

Alegazio-egileak dioten bezala, atea

Que al personarse en su vivienda, la puerta de la terraza-jardín en la que habitualmente se encuentra el perro, se encontraba abierta de par en par, sin poder saberse el motivo, ya que él dejó la puerta cerrada.

En fecha 21 de abril de 2018 se comunicó al interesado la propuesta de resolución, cuyo contenido era el siguiente.

-Declarar cometida por E.L.Z. la infracción grave tipificada en el artículo 9.2.g de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos.

-Imponerle la multa de 300,00 euros.

En dicha propuesta, se otorgó al interesado un plazo de diez días, a fin de que formulara las alegaciones que estimara convenientes.

El día 03 de mayo E.L.Z. presenta un escrito en el que alega que:

Según el artículo 1905 del Código Civil, estaríamos ante un supuesto de fuerza mayor exonerante de responsabilidad del dueño del animal.

Hay que responder al alegante que, de conformidad con lo establecido en el art. 1.105 del código civil, la fuerza mayor se define como un hecho inevitable o imprevisible, siempre que fuera de origen externo. En el presente caso, la posible apertura por agentes externos de la puerta jardín no constituye un hecho imprevisible, ni inevitable, por lo que no se dan en modo alguno los requisitos necesarios para definir el citado elemento eximente de responsabilidad.

El alegante manifiesta que la puerta



TOLOSAKO
UDALA

kanpotik ireki daiteke; beraz, neurriak hartu beharko lituzke hori gerta ez dadin."

puede abrirse desde el exterior, por lo que tendría que adoptar medidas para evitarlo.

II) ARAUDI APLIKAGARRIA

II) NORMAS A APLICAR

Aurrekarietan azaldutako egitateek Tolosako Udaleko etxe abereen udal ordenantzaren 9.2.g) artikuluan xedaturiko urraketa suposatzen dute.

Los hechos expuestos en el punto Antecedentes suponen la infracción del artículo 9.2.g) de la Ordenanza municipal sobre Animales Domésticos.

Udaltzaingoa eta Mugikortasun Batzorde Informatiboak irizpen hau aztertu eta bozkatu zuen 2018ko ekainaren 6an egindako bilkuran.

La Comisión Informativa de Udaltzaingoa y Movilidad analizó y votó este dictamen en la sesión que se celebró el día 06 de junio de 2018.

Bozketaren emaitza ondorengo hau izan zen:

El resultado de la votación fue el siguiente:

Aldeko botoak

Olatz Peon Ormazabal
Patxi Amantegi Zubiria
Maite Ruiz de Egilaz Ezkiaga

Votos a favor

Olatz Peon Ormazabal
Patxi Amantegi Zubiria
Maite Ruiz de Egilaz Ezkiaga

Aurkako botoak

0

Votos en contra

0

Abstentzioak

0

Abstenciones

0

Hori dena kontuan izanik, Udaltzaingoa eta Mugikortasun Batzorde Informatiboak ondoko irizpena onartzea proposatzen dio Udaltzaren Osoko Bilkurari.

Basándose en ello, La Comisión Informativa de Udaltzaingoa y Movilidad plantea la aprobación de dicho dictamen ante el Pleno de la Corporación municipal.

IRIZPENA

DICTAMEN

1.- Frogatutzat jotzea otsailaren 02ko 2018/288 Dekretuan egotzitako ekintzak.

1.- Dar por probados los hechos imputados en el Decreto 2018/288, de fecha 2 de febrero.



- | | |
|---|---|
| <p>2.- E.L.Z. k ondorengo arau-haustea egin duela deklaratzeko: kalterik egin dezaketenez animaliak zaintzen eta gordetzen behar hainbateko arreta ez mantentzea. (Etxe abereen udal ordenantzaren 9.2.g artikulua). Aipatutako arau-haustea larria da.</p> <p>3.- 300,52 euroko isuna jartzea E.L.Z.ri.</p> <p>4.- Hilabeteko epea ezartzea isuna ordaintzeko. Epe hau ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuko da. Ordainketa Kutxabaneko kontu honetan egin behar da: 2095 5067 10 1060024816.</p> <p>5.- Irizpen hau hurrengo osoko bilkurara eramatea.</p> | <p>2.- Declarar cometida por E.L.Z. la infracción consistente en no mantener la debida diligencia en la custodia y guarda de animales que puedan causar daños (en base al artículo 9.2.g de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos), considerándola como infracción grave.</p> <p>3.- Imponer a E.L.Z. una multa de 300,52 euros.</p> <p>4.- Establecer como plazo para el pago de dicha multa el de un mes, contado desde el día siguiente al de la recepción de la notificación de la presente resolución. El pago se realizará en el número de cuenta 2095 5067 10 1060024816 de Kutxabank.</p> <p>5.- Trasladar este dictamen a la próxima sesión plenaria.</p> |
|---|---|

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 2018UAPS0002 espedienteari dagokion zehapena, animaliak eduki eta babesteko Udal Ordenantzak hausteagatik xedaturikoa.

6. 2018/1278 (2018/7 transferentzia kreditua) Dekretuaren jakinarazpena. 6. Dar cuenta del Decreto 2018/1278 (crédito de transferencia 2018/7).

Parte-hartzeak:

... Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV) : *“Azkeneko batzordeetan gaia behin baino gehiagoetan aipatu dugu azkeneko urteetan Tolosako Udalak Tolomendirekin zeukan hitzarmena azokaren dinamizazioa eta ekintza guztiak gauzatzeko Aurtengo aurrekontuak egin genituenean, 2018an, horrela azaldu genuen baina Begoñak aipatu duen bezala, martxoan kontratazio lege berria zela medio, eta baita Tolomendiren izaera juridikoa kontutan harturik, zerbitzuek teknikoek adierazi*



TOLOSAKO
UDALA

ziguten, bai Kontuhartzailatzatik eta baita Idazkaritzatik ere, Tolomendirekin ezin zela hitzarmena sinatu. Gauzak horrela, Tolomendiko gerentearekin elkartu eta lan banaketa batzuk egin genituen, zeintzuk ziren zuzenean Tolosako udalak egin behar zituen ekintzak eta besteak Tolomendik. Kontutan eduki behar da baita ere, 2018ko Tolomendiren plangintza "Jan Tolosaldea" programa dagoela eta lotuta dagoela eskualde azokekin eta Tolosakoa zuzenki. Beraz Jan Tolosaldea proiektua Tolosaldeako 13 udalerrri sartu dira. Horrela, Tolomendirekin adostu genuen ematen zaioan ekarpena gutxi gora behera 1.000 eta igo behar zela Jan tolosaldean gaia delako. Eta beste kreditu transferentzia Azoka partidara joango zela, gehienbat egiten diren ekintza guztiak gauzatzeko. Kreditu transferentzia hau transferentzia bat da, izan ere, bai adierazi nahi dut, horrek ez duela gure lan dinamika apurtuko, bi hilabetero Tolomendi, Garaiko elkarteekin ekartzen garela, ekintza guztiak beraien artean adostu eta kudeatzen dugula, bai sentsibilizazioa, formazioa...Momentu honetan azokaren azterketan buru belarri gaude, poltsa berri batzuk egin ditugu, eta udazkenara begira egiten diren ekintzak guztiak beraiekin adostuta egiten ditugu. Hau da transferentzia bat ekintzak zeinek gauzatu eta ordainduko dituen baina lan dinamika berdin berdin geratzen da. Hori da adierazi nahi nuen.

OGASUN BATZORDEAK 2018KO EKAINAREN 21EAN EMANDAKO IRIZPENA

Kontuhartzaileak 2018ko aurrekontuari dagokion 7. kreditu aldaketarako espedientearen kontu eman du.

Zazpigarren espedientearen transferentzia-kredituaren modalitatean egin da eta jasotzen dituen partidak hauek dira:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0700.422.01.414.00 2018	LURRALDEKO BESTE ENTITATEEI. TOLOMENDI	49.700,00	19.954,94	29.745,06
	GUZTIRA	49.700,00	19.954,94	29.745,06



Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 1100.226.06.431.10 2018	JARD.SOZIO KULTURALAK. FERIA ETA AZOKAK	100.100,00	19.954,94	120.054,94
	GUZTIRA	100.100,00	19.954,94	120.054,94

Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da.

7. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko maiatzaren 1etik 31ra (2018/869- 2018/1.140). 7 Dar cuenta de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 31 de mayo de 2018 (2018/869-2018/1.140).

Alkatetzak 2018ko maiatzaren 1etik 31a bitartean (2018/869-2018/1.140) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

8. Mozioa, ekainaren 28a Gay, Lesbiana, Transexual, Bisexual, Intersexual eta Queer-en eskubideen nazioarteko eguna dela-eta. 8. Moción con motivo del 28 de junio, día internacional por los derechos de Lesbianas, Gays, Transexuales, Bisexuales, Intersexuales y Queers.

Parte-hartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Alderdi Sozialistatik beti egon gara, gaude eta egongo gara LGBTBIQ kolektiboen eskubideen alde eta defentsan, eta jasaten duten diskriminazioaren aurka borrokatu behar dugu denok elkarrekin, homofobia, lesbofobia eta transfobiaren aurkako joerak hartuz, gizartearen kontzientziazioa lortuz, denok berdinak garelako, denok pertsonak garelako.”*
- ... Onintza Lasa Arteaga (EHBildu): *“Irakuri den mozioa erabat konpletoa da, gauza gutxi dago gehitzeko. Baina pixkat gure posizionamendua esateko bai azpimarratu nahi dugu, urtero egiten dugun moduan, zoritxarrez, zoritxarrez aldarrikatzeko egun baita, oraindik normaltasunetik urrun gaudelako. Arautegian eta eredu formalean, hemen inguruan badaudela aurrera pauso batzuk aipatzen den bezala eta hori ona da. Ikusten den bezala beste leku askotan askoz okerrago daude beste egoerak daude, bere bizitzan arriskuan dago. Gertuari dagokionean arautegiak babesa eman*



dezake baina oso urruti gaude esaten dugun bezala normalkuntzatik eta horregatik aldarrikatu behar dira gaur bezalako egunak. Izan ere, arautuak egoteak ez du esan nahi ez denik zaila horrelako identitatea duen pertsona batentzat hainbat eremuetan ageri-agerian egotea. Aurreko batean beste gai bat zela eta, berdintasunaren inguruan zela eta, eskatzen zen erreforma juridikoak eta eta erreforma legalak egin behar zirela eta baten batek, ez naiz gogoratzen nor, erreformak mentalak behar zirela eta iruditzen zaigu gai honetan ere erreforma mentala behar dugula. Izan ere, hemen aipatzen den bezala, hemen fobiak mantentzen dira, fobiak, erretxazoak, uko egiteak e.a. Beraz, bat egiten dugulako denekin baina zerbañ aipatzearren pertsona guztiek eskubidea dutela sexu eta maitasun askatasunerako eta beraien identitatea definitzeko bat egiten dugu. Baliabideak jartzen dira, ikastetxeetan ez solik, hainbat lekutan, ikustarazi behar da errealtatea, gazteekin jakinduria dagoelako eta horrek normaltasuna eta azkenean errespetua ahalbideratzen duelako. Horregatik bat egingo dugu.”

... Alkatea: *“Onintzak aipatzen duen ildo berdinetik. Homosexualitatea, lesbianismoa, transexualitatea eta gorputzez normatiboak orokorrean urte askotan lotsa, atsekabea eta sufrimendua parean jarri izan dira. Adierazpenean esaten den bezala eta Onintzak aipatzen duen bezala, egoera erotik aldatzeko indarrak ez du abiadura bera eraman leku guztietan. Gure ingurune hurbilean, azken hamarkadetan, aurrerapauso itzela eman da, bai ikusgarritasunean, onarpen mailan eta lege berdintasunean. Baina oraindik ezin dugu baieztatu aniztasuna ezagutu eta positibo baloratzen dela gaur egunean gure jendartean. Horregatik oraindik ezinbestekotzat jotzen dugu tokiko administrazioetan ere ekainaren 28a baliatzea genero aniztasunaren ikusgarrigarritasunari keinu bat egiteko. Gutxieneko eskubidez baino ezinbesteko eskubidez ari garelako hitz egiten.”*

Alkateak mozioa irakurri du. Honela dio:

“1969ko ekainaren 28ko data, Stonewall tabernako gertakariak izan ziren gaua, historikotzat hartzen du lesbiana, gay, transexual, intersexual eta queer-en askapen mugimenduak. Gau hartan, sexu- eta genero- desberdineko jendea isolaturik egoteari utzi eta sistemari aurre egiteko elkartu zen, beren eskaerak agerian jartzeko, ikustarazteko eta diskriminatzen zituen sistema baten bidegabekeriaren aurka borrokatzeko.

Begi-bistakoak dira egun hartatik gaur arte gai horretan izan diren aurrerapenak, bai lege-mailan nola gizartean, hain zuzen ere, funtsezko eskubide zibil batzuk parekatuak, LGTBIQ eta Mugimendu Feminista kolektiboen borrokari esker. Lorpen garrantzitsuak dira, eta posible egin dute onarpen eta irekitasun egotea sexu- eta genero-dibertsitatearen inguruan.



Hala ere, LGTBIQ-fobiak bizirik jarraitzen du: ezarrita dago 70 herrialde baino gehiagotako zigor-kodeetan, zeinek generoko orientazio eta adierazpen desberdinak erreprimitzeko arauak dauzkaten; heriotza-zigorra indarrean dago, oraindik ere, zenbait herrialdetan, eta egoera tragiko horrek eragindako asilo-eskaerak gora doaz, gero eta azkarrago joan ere. Errealitate honen ondorio gisa aipatu beharrekoa da gora egin duela azken urteotan LGTIQ errefuxiatuen eta asilo eskatzaileen kopuruak eta horrek ekarri du kolektibo honekiko diskriminazioa errefuxiatuen beraien aldetik, eta, gainera, funtzionarioen aldetik ere izan dira diskriminazio kasuak.

Halaber, Eraberean sareak egindako txosten batean, ohartarazten digute sexu-aurreiritzi batek oraindik irauten duela, eta horrek eredu heteronormatibotik irteten diren sexualitate zein orientazioak diskriminatu egiten dituela; trans kolektiboaren patologizazioak jarraitu egiten duela; ideologia atzerakoia duten entitateek etengabe erasotzen dietela kolektibo horiei; kolektibo horiek jazarpena jasaten dutela lantokietan; merkataritza- eta asia-lokaletan portaera diskriminatzaileak izaten direla; kolektibo honetako adinekoek diskriminazioak eta bizi-baldintza eskasak jasaten dituztela; ikastetxetan jarrera homofobiko eta lesbofobikoak daudela eta transgenero diren ikasleek jazarpena jasaten dutela. Ikasle horien arazoak areagotu egiten dira pubertaroan, fase horretan gorputza aldatu egiten da, eta orduan genero-identitatea zalantzan jar daiteke; gainera, gizon-emakume binomiokoa izateko agindua zorroztu egin daiteke.

Arrazoi horiengatik, Tolosako Udalak nahi du LGTBIQ pertsonak jasaten duten diskriminazioa gaitzetsi eta berriz berretsi sexu-orientazio eta genero-identitatearen ondoriozko aurreiritzien aurka duen borrokatzeko konpromisoa.

Tolosako Udaleko talde politikoez horrexegatik adosten dute, Osoko Bilkura honetan, udal esparruan osorik garatzea honoko jarduketak hauek:

- Batetik, posizionamendurik irmoena erakustea harako dela beren sexualitateagatik dela beren genero-identitateagatik "normaltzat" jotakotik kanpo dauden pertsona haiekiko aurreiritzi eta erasoen aurka, eta bestetik, aldarrikatzea pertsona guztiek eskubidea dutela sexu- eta maitasun-askatasunerako, beren identitatea definitzeko eta beren harremanak aukeratzeko.

- Lesbofobia, homofobia, bifobia eta transfobiaren kontrako informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak sustatzea, erreferente positiboak sortzeko maitasun- eta sexu-dibertsitatea bizi ahal izateko, herritarren kontzientzia solidario berri baterantz aurrera eginez eta berdintasun eta errespetuko balioetan gizarte-kohesioa segurtatuz, eta diskriminaziorik ezaren kultura zabaltzeko kolektibo horiek jasaten dituzten eraso eta aurreiritzien aurrean.

- Hezkidetzeta-proiektuaren bitartez, Tolosako ikastetxei beharrezko tresnak ematea, diskriminazio hau jasaten egon daitezkeen ikasleak txikitatik laguntzeko. Eta irakasleei laguntzea, maitasun- eta sexu-dibertsitatearekiko errespetuari behar bezala heldu ahal izateko tresnak eta ikasmaterialak emanda.

- Agerian jartzea eta zabaltzea, Erakundeen arteko Jarduerarako eta



TOLOSAKO
UDALA

Koordinaziorako Udal Protokoloaren Mahaiaren bitartez, kolektibo horren gainean espazio fisiko eta sinboliko guztietan egiten diren indarkeria matxistaren era guztiak. Eta orobat, Jarduerarako sexu bereko bikoteen arteko indarkeriatik datozen arazoak agerian jarri eta aztertzeko protokolo bat egitea.

Era berean, jakinarazten da berriro margotuko dituztela Antonio Lekuona kaleko eskailerak eta, gainera, ekainaren 22tik uztailaren 1era, Zerkausia LGTBIQ banderaren koloreekin argizatuko dute, alegia, ortzadarraren koloreekin, izan ere, bandera hori erabiltzen da, 1970az geroztik, harrotasun lesbikoaren eta gayaren ikur moduan, kolore horiek LGTBIQ komunitatearen dibertsitatea irudikatzen dute eta.

Bukatzeko, herritarrak gonbidatu nahi ditugu, ikus dezaten Enfemme dokumentala, Alba Barbek zuzendua, ekainaren 27an, asteazkena, 19:00etan, TOPICen."

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** ekainaren 28a Gay, Lesbiana, Transexual, Bisexual, Intersexual eta Queer-en eskubideen nazioarteko eguna dela-eta aurkeztutako mozioa

9. Euskaraldia udalerrian sustatzeko mozioa. **9. Moción para promocionar Euskaraldia dentro del municipio.**

Parte-hartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *"Guk bat egingo dugu adierazpen honekin eta herritarrei animatu nahi diegu ekimen honetan parte hartzea, ahobizi edo belarriprest bezala, hizkuntza-ohiturak aldatzeko eta hizkuntza-praktika berria sortu eta eusteko.*

- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *"Euskaraldiak elementu positibo asko dauzka, gure irudiz. Lehenengo elementu positiboa elkarlana da. Elkarlana, euskalgintza sozialaren eta euskalgintza instituzionalaren arteko elkarlana. Horrela jaiotako proiektu Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako eta topagune bultzatutako ekimen batetik eta poztekoa da. Egia esan gure herrian askotan bi biak ez dira trenbide berean aritu. Batzuetan ere talka ere egin dute. Egia esan tolosan bestelako egoera izanda, badago euskalgintza instituzionalaren eta euskalgintza*



sozialaren elkarlanaren tradizio bat. Hor digutu Galtzaundirekin, 28 kanalarekin edo Atariekin udal honek dituen hitzarmenak eta urteetan eskualdearekin egin izan dituen hitzarmenak euskara bultzatzeko. Nik uste dut ahalegin inportantea dela eta euskarraren etorkizuna eta euskara erabileraren etorkizuna elkarlan hortik joan beharko duela zati haundi batean, ezin dugula ez batzuk ez besteak pentsatu egia osoaren jabe garenik. Hor balio inportante bat da, azpimarratu behar dena. Bestea balio inportante bat da, ez gara hutsetik abiatzen, aurreko esperientateik abiatzen garela, Lasarten, Agurainen, Donostiako Egia auzoan egindako esperientzietatik, horien emaitzetatik, ez da hutsera egingo den jauzi bat, emaitzak neurtuta izan dituen ekimen batetik, emaitza positiboak izan dituenak. Bestetik, Tolosan egoera ezin hobe batetik abiatzen gara, ahobizi portzentaia %70en bueltan dago, gazteengana jotzen badugu, ia ia %100aren bueltan dabil. Belarriprest posibleak hortxe dabilta %15eko buelta horretan. Horrek aukera izugarriak bihurtzen ditu, batetik 11 egun horietan euskara izateko Tolosan hizkuntza nagusia gizaratean. Aukerak ematen ditu oinarriak jartzeko 11 egun horietan egindako lana, jarraipena eta lorpena izateko etorkizunean. Eta kasu paradigma txiki baten aldaketa garaian egon gaitzke, non Tolosan euskarak bizi den gizarate, elementu pertsonal gizaratea euskaraz funtzionatzen duenak. Eta behin belarriprest direnak hurrengo batean ahobiziz izatea. Eta bata eta ez besteaz direnak gutxienez belarripreste izatea. Baina horretan guztion ahalegina behar da, bai euskeraz egiten dugunarena y tambien de esos que hablais en castellano y tambien de esos que e teneis esa pequeña carga de conciencia de que ahora voy a poner a todos en euskera a todos los demas. Vosotros tambien podeis tomar parte en esta campaña, no es cosa solo de los que hablan euskera, de los que entienden euskera, sino de todos los tolosarras. Y con la buena voluntad de todos, con el apoyo de todos podremos conseguir que la proxima vez, ya no seais ni uno ni otro, que seais por lo menos belarriprest. Hau tolosar guztien ahalegina da ez bakarrik euskaraz egiten dugunona bakarri, ezta euskaraz ulertzen dugunona bakarrik ere.. Beraz animatzen dizuegu belarriprest izatea, horretarako gaitasuna duzuenak eta beste guztiak ahobizi izatea. “

... Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV): “Cristianek eta Iñakik esandakotik aurrera hueko txikia utzi duzue ezer esateko Bai esango nuke urtero egin izan ohi diren komunikazio kanpainetan n erabilerara sustatzeko horietan gehienbat intziditu dela jarreran orain arte. Orain arte urte askotan egin diren kanpaina horietan. Oraingo honetan berriz, gehiago heltzen diogu erabilerari. Hain zuzen, jarrera aktibo hartzera euskararen erabileran martxan jarri nahi den programa honekin. Aipatu du Iñakik, froga honenak egin dira zenbait lekuetan eta bai ikusi dela hizkuntz ohituren aldaketetan eragina dextentea dela, pentsatzen zen baina altuagoa. Egia den bezala programa martxan iraun duen bitartean erabileran gora egin dela eta utzi denenean programa galera bat suertatu dela kolpean,. Baina egia da, behin hiru hilabete pasata gero ikusi dela hasierako egoera baino egoera dextentz hobe dela nahiz eta galera gertatu. Hori irizpide hartuta espero da proiektua hau ondo funtzionatuko duela eta lehen esan den bezala inplikazio soziala haundia izango duelakoan eta konpromiso pertsonala eskatzen duelakoan gauzak ondo joango direla eta eragina inportantea bere neurritz izango duela hizkuntz ohituretan aldaketak suertatzeko. Hori da, aipatu nahi nuena eta hortik aurrera esanak daude eta horretan utziko nuke. “



Alkateak irakurri du mozioa. Honela dio:

“Gipuzkoan bi hizkuntza ditugu ofizialak: euskara eta gaztelania. Begi bistakoa da, ordea, bi hizkuntzok ez daudela oreka egoera batean, ez esparru publikoan ez eta gizartean ere: gaztelania da nagusi. Uste dugu orain arteko ahaleginarekin bakarrik ez direla bi hizkuntzak parekatuko, indar gehiago jarri behar dugula hizkuntza-berdintasuna bultzatzeko; euskara lehenetsi behar dugula, alegia. Izan ere, gizarte-, genero- eta hizkuntza-berdintasuna lortzea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udalen erronketako bat, eta, horrenbestez, horretara bideratutako urratsak egitea.

2016. urtean egindako VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, ezagutza-datuek nabarmen egin dute gora azken hamarraldietan, baina erabilera ez da neurri berean hazi.

Euskararen ulermenari ez diogu behar besteko garrantzirik eman; izan ere, erabileraren korapiloa askatzeko gako nagusi bat ulermena da. Alegia, euskararen ulermenaren balioa azpimarratuz gero, ulermena erabat zabalduz gero, euskararentzat eta gipuzkoarrantzat erabilerarako eremu zabal eta emankorra zabalduko dugu.

Euskararen normalizazio-prozesua inflexio-puntuari dago, fase baten amaieran eta beste baten atarian. Aro berri horretan, agerikoa da erabileran jarri beharra dagoela indarra.

Euskaraldia, 11 egun euskaraz, azaroaren 23tik abenduaren 3ra

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak, beste hainbat eta hainbat eragilerek in elkarlanean, abian jarri dute Euskaraldia ekimena.

Ekimen horretan 11 egunetan hizkuntza-praktika berri bat gauzatzera gonbidatuko ditugu herritarrak. Ariketa horren subjektuak 16 urtetik gorako helduak izango gara, eta 11 egunez hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo bat egitea da proposamena, indarra ulermenean jarrita. Bi subjektu-mota bereizi dira: ahobizi eta belarriprest.

Ahobiziek, 11 egun horietan, euskarari eutsiko dicte solaskideak euskaraz ulertzen duen guztietan, eta, belarriprestek, aldiz, solaskideak beraiekin euskaraz aritzera gonbidatuko dituzte, nahiz eta belarriprestak berak euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.

Ekimenaren helburua hau da, besteak beste: ariketa praktiko horren bidez ikusaraztea eta bizi-araztea hizkuntza-ohiturak alda ditzakegula, eta, ahal dela, 11 egun horiek igaro eta gero, hizkuntza-praktika berri horiei eustea.

Euskaraldia Tolosako Udalean



TOLOSAKO
UDALA

Gure udalerria ere buru-belarri sartu da, eta ekinbidea burutzeko batzordeak lanean dihardu.

- Tolosako ordezkari politikoen % 100 gai da euskara ulertzeko eta % 100 euskaraz hitz egiteko.*
- Tolosako langile publikoen % 100ek ongi edo oso ongi hitz egiten du euskaraz.*

ERAKUNDE ADIERAZPENA

Tolosako Udalak honakoa adierazi nahi du:

- Udalbatzak bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.*
- Ordezkarari politikoon egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea. Horrenbestez, denok parte hartuko dugu ekimen honetan ahobizi edo belarriprest izanik. Halere, udal barrura begira, arduradun politiko zein langileek ahobizi jarrera sustatuko dugu gure ohiko jardueran.*
- Ahobiziotik euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.*
- Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible egiteko eta etorkizunean eutsi ahal izateko.*
- Udalak, ekimenaren sustatzaile gisa, udal barruan ez ezik, udalerrian ere herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldia ekimenean parte har dezaten ahobizi edo belarriprest gisa, eta izena emateko bideak erraztuko ditu.*
- Udalak bat egiten du ekimena elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin Gipuzkoan, ahalik eta udal eta mankomunitate gehienetan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Batzar Nagusietan, lurralde mailako politika bateratu bati begira."*

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa izan da da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez onartu du Euskaraldia udalerrian sustatzeko mozioa.

Gai zerrendatik kanpo, premiazko mozioa aurkeztu da eta gaiaren premiafasuna bozkatu egin da:



TOLOSAKO
UDALA

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Egulaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak gehiengo absolutuz onartu du gaiaren premiatasuna.

- **Iruñeko bortxaketaren kasuan zigortutakoak behin-behinean aske uzteari buruzko adierazpena.**

Parte-hartzeak:

... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Beti esaten dugu epaileen erabakiak errespetatu behar direla, bai, baina kasu honetan ez dut konpartitzen erabaki hau inondik inora. Emakumeen eskubideak eta askatasunak ez ditu bermatzen eta babesten auto honek. Guk beti agertuko gara eraso matxisten aurka eta biktimen alde. Gogoratu, Ez zaudete bakarrik, zuekin gaude.”*

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *Gure aldetik ere argi dago. Behin baino gehiagoetan esan dugu, lehen ere beste adierazpen bat irakurri da eta aho batez onartu da gu guztion eskubideen alde. Sententzia honek, lehenik eta behin, jada mina egin zigun guztioi eta gizartean isla izan zuen gu guztiontzat bortxaketa bat izan delako, argi eta garbi. Eta momentu honetan auziperatuak libre uzteak beste justiziaren injustiziaren adierazle bat gehiago jartzen digu mahai gainean. Auziperatuak Espaini guztian libre ibili daitezke, Madrilen izan ezin eta biktimak, aldiz, Madriletik ezin du atera besteekin topo egin dezakeelako. Ez dauka ez zentzu ez hanka. Jjustizia ez da hori. Argi daukagu bortxaketa bat izan zela, bortxaketa brutal bat izan zela eta, gainera, argi daukagu gai honek mediatikoki izan zuen islada haundi horrekin ejenplarra izan behar zela. Ejenplarra izan behar zela beste batzuek eta gizarteak jakin dezan horrelako egoeraren aurrean gertatzen baldin badira horrelako astakeriak zigorra gogorra eta kontudentea izango dela. Eta ez da izan eta ez da ari izaten. Ondorioz, honek dakar berriz ere, emakumea babes uztea, emakumea babes gabe egoten jarraitzea, emakumeek bildurra sentitzea eta beste batzuk, aldiz, beraien jarrera matxista eta zanpatzaile horietan berrestea eta beste batzuei erakustea merkea ateratzen dela neska bat, emakume bat hartu brutalki bortxatu eta harrapatu arren merke ateratzen zaiela hori guztia. Pertsona baten bizitza txikitzeak prezioa merkea du Espainiako justizian. Horregatik, iruditzen zaigu lehenik eta behin bortxatzaile hauen sententzia gogorragoa izan beharko lukeela, bortxatua izan delako emakume hau. Bigarrenik, ez luketela kalean egon behar eta, are eta gehiago, bortxatzaileetako bat, Guardia Zibila bera, soldataren % 75 kobratzen egon dena espetxe militar batean bi urte, aske izatea eta pasaportea ateratzen saiatu denean. Beraz, astakeria bat beste baten atzetik datorrela, etorrik dela iruditzen zaigu eta honi amaiera eman beharko litzaiokeelako. Ejenplarra izan beharko genuke sententzia honekin eta beste guztiekin ere, baina are eta gehiago honekin mediatikoki izan duen erreperkusio guztia izanda. Honek erakusten gauza*



TOLOSAKO
UDALA

asko egiten saiatu arren oinarrian matxista eta oinarria patriarkala den gizarte batean bizi garela, gizonak agintzen duten gizarte batean bizitzen jarraitzen dugula eta gauzak oraindik asko eta sakon aldatu beharko dira benetan gizarte parekide batera iritsi ahal izateko. Horregatik, kontra gaude eta eskatzen dugu edo bat egiten dugu mozio honekin. "

... Alkatea: "Ez da lehenengo aldia Tolosan eraso matxistarik ez ditugula onartzen adierazten dugula osoko bilkura honetan. Nafarroako auzitegiak hartutako erabakiak gizarte osoan haserrea sorrarazi du. Iritzi ezberdinak azaldu dira. Ez dakit hainbeste ordenamendu juridikoa zalantzan jarri behar den edo eta arazoa are eta larriago den eta oraindik ere emakumea eskubide osodun gizakia izateko eta horrela errespetatua izateko bide luzeegia geratzen ez ote zaigun. Berria San Fermin jaien atarian jasotzeak are eta larriagoa egiten du erabakia gure ustez behintzat. Hemendik gure solidaritatea adierazi nahi genieke adierazpena onartzearekin batera, generogatik eta jazarpena sufritu duten munduko emakume guztiei."

Alkateak mozioa irakurri du. Honela dio:

"2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren kasuan zigortuak izan ziren bost pertsonak, behin behinean aske uzteko Nafarroako Auzitegiak hartutako erabakiak gizartean sortu duen ezinegon eta kezka handiak, Tolosako Udalak gaiari buruz jarrera plazaratzea eskatzen du, honakoa ADOSTUZ:

LEHENIK.- Tolosako Udalak bere babes, maitasuna eta elkartasuna adierazten diete biktimari eta bere senitarteko eta ingurukoei.

BIGARRENIK.- 2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren kasuan zigortutakoak, behin behinean aske uzteko Nafarroako Auzitegiko Autoak jasotzen duenarekin gure erabateko desadostasuna adierazten dugu. Zentzu honetan, gure babes erakutsi nahi diegu aipaturiko autoa inpugnatu nahi duten erakundeei, beharrezkoak diren errekurtsorako bitartekoak erabiliz.

HIRUGARRENIK.- Gure etsipen eta haserrea erakusten dugu auto berri honen aurrean, eta justizia eskatzen duen aldarriarekin bat egiten dugu. Erabaki honek babesik gabe uzten gaitu emakume guztiak; sistemak ez ditu behar bezala babesten emakumeen bizitzak eta ez ditu emakumeen eskubideak bermatzen. Hau ez da justizia.

LAUGARRENIK. - Emakume guztiek askatasunerako dugun eskubidea aldarrikatzen dugu, eta, era berean, Tolosako Udalak ez duela inolako eraso matxistarik onartzen. Erasoen aurka antolatzen diren mobilizazioekin bat egiten dugu eta deia luzatzen diegu herritarrei, parte har dezaten.

BOSGARRENIK.- Tolosako Udalak berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa berresten du, mugimendu sozial, feminista, eta, oro har, herritarrekin, eta bereziki, emakumeen eskubideen defentsan eta patriarkatuaren adierazpen ororen aurka."



TOLOSAKO
UDALA

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin eta Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Iruñeko bortxaketaren kasuan zigortutakoak behin-behinean aske uzteari buruzko adierazpena.

10. Galderak eta eskaerak.

10. Ruegos y preguntas.

Atal honetan ez da, ez galderarik, ez eskaerarik izan.

Besterik gabe, 20:45ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut.

ALKATEA

IDAZKARIA

